

# Zer da Baso-kudeaketa Jasangarria ?

## I- Zer da Baso-kudeaketa Jasangarria ?

Baso-kudeaketa jasangarria basoak modu arduratsuan tratatzeko forma da: beraren bidez lortzen da beraren produktuak eta zerbitzuak modu orekatsuan kontserbatzea eta aprobetxatzea, etorkizunean birsortzen jarraitu dezaten, betiere animalia eta landareen dibertsitatea eta haien kontserbazioa kontuan hartuta.

Kudeaketa jasangarriaren bitartez lortzen dugu basoak osasuntsu haztea eta sendo egotea, CO<sub>2</sub> gehiago xurgatzea, gehiago ekoiztea, enplegu gehiago sortzea eta etekinak ematea euren jabeen eta gizarte osoari.

Baso-kudeaketa Jasangarriaren helburuak baso-kudeaketak berak dituen helburuen osagarri dira, jarduteko forma definituz. Helburu horien artean, honako hauek aurkitzen ditugu:

- Ekosistemen biodibertsitatea mantentzea, kontserbatzea eta hobetzea.
- Garrantzi ekologikoa duten baso-eremuak babestea.
- Baso-komunitateen osasuna eta ongizatea sustatzea.
- Giza eskubideak baso-lanetan errespetatzea.
- Kontsultak egitea tokiko biztanleriarekin, komunitateekin eta beste interesatu batzuekin.
- Klimarako positiboak diren praktikak aplikatzea, hala nola berotegi-efektuko gasen isurketak baso-operazioetan murriztea.

## II- Baso-kudeaketa jasangarriaren jarduera nagusien artean, honako hauek aurkitzen ditugu:

### Basoak lehengoratzea:

Zer egiten dugu?

- Basoa gazteagotu eta baso-azalera berreskuratzen dugu.
- Badira zenbait modu hori lortzeko:
  - Lehengoratze naturala, hazietatik abiatuta (1)
  - Lehengoratze artifiziala: landaketa / ereintza (2)
  - Lehengoratzea andui-kimuetatik edo sustraietatik abiatuta (3)

Zer lortzen dugu?

- Zuhaitzen kopurua ez da inoiz ere jaisten
- Zuhaitz bat moztzen den bakoitzean, gutxienez beste bat landatzen da beraren ordean.
- Lurra eta uraren kalitatea babestuta mantentzen ditugu.
- Baliabide berriztagarriak eskuratzen ditugu etorkizunerako: zura, sutarako egurra, biomasa...
- Atmosferako CO<sub>2</sub>aren finkatzaileak instalatzen ditugu, klima-aldaketaren aurkako borroka laguntzeko.



## Baso-kudeaketa jasangarria

Zer da Baso-kudeaketa Jasangarria?

### Lehengoratzearen adibidez:


(1) Modu naturalean lehengoratutako basoa, mozketaren ostean uzti diren zuhaitz aiten hazien bidez.

Baso heldu bat dugunean, horrek esan nahi du beraren zuhaitzak astiroago hazteko unera iritsi direla, eta, hortaz, CO<sub>2</sub>a xurgatzeko ahalmen txikiagoa dutela eta sentikorragoak direla izurrite eta gaixotasunen aurrean; bada, orduan iritsi da zuhaitz horien egurra aprobetxatzeko eta basoa lehengoratzen hasteko unea. Lehengoratze hori lortzeko, zuhaitz guztiak aldi berean moztu beharrean poliki-poliki moztetari ekiten zaio, txarrenak edo gaixorik daudenak kenduz eta osasuntsuenak eta sendoenak amaierarako utziz.

Geratzen diren azken zuhaitzak izango dira kalitate oneko hazia sortuko dutenak, kantitate handian, baso berri bat osatzeko; berau haziz joango da, berriz ere baso heldu bat osatzera iritsi arte.

**Baso bat osatzen duten zuhaitzak moztu ondoren, beti izaten dugu helburu berbera: baso berri bat sortzea, zuhaitz kopuru berberarekin edo gehiagorekin.**

Ondorengo diagraman ikus daiteke sekuentzia osoa: baso heldu batetik abiatzen gara, egurra aprobetxatuz eta oin onenak haziak emateko utziz. Hazi horiek ernatzen dira eta hazten hasten dira, berriz ere baso heldu bat izatera iritsi arte.





## Baso-kudeaketa jasangarria

Zer da Baso-kudeaketa Jasangarria?

(2) Landaketa edo ereintzaren bidez lehengoratutako basoa.


Kasu honetan ere, baso heldu bat hartzen dugu abiapuntutzat; lehen esan dugunez, bertako zuhaitzak astiroago hazten dira, lur eta klimaren arabera lor dezaketen gehieneko altuerara iritsi dira, CO<sub>2</sub> gutxiago finkatzen dute eta sentikorragoak dira izurrite eta gaixotasunen aurrean. Zuhaitzak mozteko unea da, haien egurra erabiltzeko eta zikloa berriz ere hasteko, baso berri bat sortuz.

Kasu honetan, zuhaitz guztiak mozten dira, eta handik gertu ez badago haziak sortu dezakeen zuhaitz heldu eta osasuntsurik -horien bidez zuhaitz jaiotzeko-, geuk erein edo landatu beharko ditugu haziak, basoa lehengoratu edo birsortu ahal izateko.

Urte batzuk geroago, zuhaitz horiek ere heldutasunera iritsiko dira, eta horrela hasiko da berriz zikloa.

### Baso-azalera ez da murrizten, eta zuhaitz kopurua ez da inoiz ere jaisten.

Ondorengo diagraman ziklo oso bat ikus dezakegu, landaketatik moztetaraino, basoaren hazkunde eta garapenetik pasatuz.





## Baso-kudeaketa jasangarria

Zer da Baso-kudeaketa Jasangarria?

(3) Andui-kimuetatik abiatuta lehengoratutako basoa.

Espezie batzuek mozketaren ostean duten birsortze-ahalmena aprobeztatzen dugu baso-azalera lehengoratzeko.



### Bitarteko baso-aprobetxamenduak

Zer egiten dugu?

- Basoa osatzen duten zuhaitzen multzo bat ezabatzen dugu.
- Ezabatzen diren zuhaitzen aukeraketa bilatzen dugun helburuaren arabera da; izan ere, helburua izan daiteke zuhaitzen egoera sanitarioa hobetzea, ezaugarri hobeak dituzten zuhaitzen alde egitea, zuhaitzek haizearen aurrean duten erresistentzia hobetzea, eta abar.

Zer lortzen dugu?

- Geratzen diren zuhaitzen egoera eta kalitatea hobetzen ditugu.
- Baso osasuntsu eta sendoak lortzen ditugu, hots, izurrite, sute eta klima-aldaketaren aurrean erresistenteagoak diren basoak.
- Baliabide berriztagarriak: zura, sutarako egurra, biomasa. Baliabide horiek berriztagarriak ez diren materialak eta karbono-aztarna handiagoa duten erregaiak ordeztzen dituzte, eta, hortaz, klima-aldaketaren aurka borrokatzen gara.
- Lanpostuak sortzen dira landa-eremuetan.
- Lehengaiak lortzen ditugu tokiko industrietarako.
- Etekin ekonomikoak lortzen dira baso-jabearentzat.





## Baso-kudeaketa jasangarria

Zer da Baso-kudeaketa Jasangarria?

### Azken baso-aprobetxamenduak

Zer egiten dugu?

- Zuhaitz helduak mozten ditugu, basoa berritzeko.
- Heldutasunera heldu diren eta -hortaz- CO2 gutxiago xurgatzen duten zuhaitzak mozten ditugu.
- Baso-izurriteen aurrean kalteberagoak diren zuhaitzak mozten ditugu.

Zer lortzen dugu?

- Baliabide berriztagarriak: zura, sutarako egurra, biomasa. Baliabide horiek berriztagarriak ez diren materialak eta karbono-aztarna handiagoa duten erregaiak ordeztzen dituzte, eta, hortaz, klima-aldaketaren aurka borrokatzen gara.
- Lanpostuak sortzen dira.
- Lehengaiak tokiko industrietarako.
- Etekin ekonomikoak baso-jabearentzat.



### Suteen prebentzio

Zer egiten dugu?

- Zuhaitz txikiak eta sastraka ezabatzen ditugu (erregaiak murrizten dugu).
- Eten bertikal eta horizontala sortzen dugu erregaian.
- Suebakiak egiten ditugu.
- Baso-pistak egiten ditugu eta lehendik daudenak mantentzen ditugu, sutarik gertatuz gero bertara iritsi ahal izateko.

Zer lortzen dugu?

- Suteak txikiagoak izatea eta kalte gutxiago sortzea.
- Biodibertsitatea, flora eta fauna eta haien habitatak mantentzen ditugu.
- Lurraren galera eta uraren kutsadura eragozten ditugu



Kudeatutako baso honetan, zuhaitz batzuk moztu dira, baita sastraka ere, eta horren bidez murriztu egin da erregaiaren jarraitutasun bertikal eta horizontala.



Kudeatutako baso batean, suak lurzorutik egiten du aurrera eta zuhaitz handi gutxiago suntsitzen ditu. Horrela, errazagoa da suari aurre egitea, basoa lehenago berroneratzen da eta lurzoru gutxiago galtzen da.



Kudeatu gabeko baso batean, zuhaitz handi eta txikiak oso gertu daude elkarren artetik, landaretza trinkoa da eta lurzoruan hondakin sukoiak egoten dira.



Suak intentsitate handiagok erreko luke eta zuhaitz handien adaburuaren goiko aldera iritsiko litzateke, baita hiltzera ere iritsi. Era horretan erretako basoek urte asko behar dituzte lehengoratzeko; habitaten galera eta lurzorua higidura handiak dira.





## **Baso-kudeaketa jasangarria** Zer da Baso-kudeaketa Jasangarria?


### **Baso-pistak**

Zer egiten dugu?

- Baso-pista berriak egiten ditugu.
- Lehendik dauden pista hobetzen ditugu.

Zer lortzen dugu?

- Sarbidea errazten diegu ingurune naturaleko langile guztiei.
- Suterren bat gertatuz gero, arinago iritsi gaitezke itzaltzera, eta horrela kalte gutxiago egongo dira.
- Menditik egiten ditugun paseo eta txango asko pista horiei esker egin ditzakegu.



### **Abereentzako azpiegiturak: itxiturak, putzuak, uraskak**

Zer egiten dugu?

- Itxiturak (hesiak) jartzen ditugu, abereek ihes egin ez dezaten.
- Uraskak jartzen ditugu, abereek ura edateko lekuak izan ditzaten.
- Ur-putzuak eraikitzen ditugu: abereentzako ura hartzeko balio dute, eta fauna babestuko espezie batzuen habitata dira.

Zer lortzen dugu?

- Abeltzaintza-kudeaketa egokiak garbi mantentzen du mendia, larreen kalitatea hobetzen du eta onuragarria da biodibertsitaterako.
- Landa-eremuetako abeltzainak ez desagertzea.
- Esne, gazta eta gisa bereko produktuak eskuratzen ditugu.





## **Baso-kudeaketa jasagarria** Zer da Baso-kudeaketa Jasagarria?

### **Bidezidorrak, aisialdi-eremuak**

Zer egiten dugu?

- Bidezidorrak prestatu eta seinaleztatzen ditugu.
- Piknika egiteko eta akanpaleku gisa erabiltzeko eremuak prestatzen ditugu.
- Informazio interesgarriak eskaintzen duten kartelak jartzen ditugu, gai hauei buruzkoak: inguruneke fauna eta flora, elementu garrantzitsuak, bisitatzeko lekuak, etab.

Zer lortzen dugu?

- Jendea mendira goatzera joatea, galtzeko arriskurik gabe eta ingurunea kaltetu gabe.
- Turismoa erakartzen dugu landa-eremuetara.

